

2008ko otsaila

68. zenbakia

Aikor!

txorierriko aldizkaria

Hiru emakume, hiru iritzi



Etxebizitzak Zamudioko erdigunean



1, 2, 3 eta 4 logela dituzten etxebizitzak • Duplex
Merkataritzako lokalak • Garajeak eta trastelekuak • Zamudioko erdigunean



• Saltokia: Pago Kalea, Zamudio
Ordutegia: martitzizenetan eta eguenetan, 9:00tik 13:00era

languntzaileak

BBVA



94 452 31 76
94 679 31 42

SAETXE
urbanizaciones



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Javier Lekerika, Zalao Jaka, Iñaki Bilbao, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea eta Juanxku Bilbao.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Abutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

11 Inauteriak Sondikan



14 Xabier Mendiguren



26 Untza Mendi Taldea



30 Derio eta derioztarrak argazki liburua



20 AIKOR! aldizkariak 6 urte bete ditu



AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
11Inauteriak Sondikan 14Gurean izan da... Xabier Mendiguren
20AIKOR! aldizkariak 6 urte bete ditu
24Behargintza 26Untza Mendi Taldea
28Osasuna 29Teknologia
30Derio eta derioztarrak argazki liburua
31Txorierri ezagutu 32Sukaldaritza
33Denborapasa 34Agenda

ATARRABI

Erreventari, 11 - 48150 Sondika
Tfnos.: 944 531 928

FONTANERIA DOBARAN

Berriztatze - lanak:

- Etxebizitzak
- Suetak
- Bainugelak

94 453 3860
658 75 9084

Mizina, 4 - 48150 SONDIKA

Goiri '78 S. L.

Servicio Oficial

POL. IZARZA
Tfnos.: 94 453 25 15
94 453 39 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Zertarako erabili petrolioa, gure energia badugu?



JABIER LEKERIKA

(Txorierri Politeknikako irakaslea)

Gizakia energiaren erabiltzailea izan da betidanik eta, ondorioz, haren kontsumoa abiadura handian areagotzen joan da. Kontsumo-handitze horrek kalte ikaragarriak ekarri dizkio naturari, eta bere baliabideak agortzeko zorian utzi ditu.

Gure baso eta etxe-inguruak garbi zeuden lehen baserriarrak arduratzen ziren horretaz -; gaur egun, berriz, txalet itxura hartzen ari dira, eta sasiz eta sastrakaz bete daude inguruak.

Ez dakit hurrengo hau bazterrak garbi

mantentzeko konponbidearen hasiera izan litekeen, baina basoetako egurra erregaitzat erabiltzeko teknologia berriak lantzen da biltza, eta dagoeneko badugu erregai alternatiboa (*pellet*) etxeen bero-beharrizanak asetzeko. Europako herrialde batzuek -Suedia, Italia...- bidea eginda dute zentzu horretan eta Euskal Herrian ere bagabiltza lehenengo pausuak ematen.

Nolanahi ere, ez da beharrezkoa zuhaitzak ebakitzen hasia egurraren energia gure etxera ailegatzeko. Bizkaian bertan badago enpresa bat teknologia hau lantzen duena. Enerpellet du izena eta Muxikako Ebaki lantegiaren barruan dago.

Inguruko zerrategietako zerrautsa bildu eta tratatu baino ez dute egiten enpresa horretan. Zerrautsa erregai bihurtzeko, lehenengo eta behin, sikatu egin behar da hezetasuna %10eraino jaitasi arte; ondoren, *pellet* produktua sortzen da makina baten bidez. Erregaia era bitan dago komertzializatuta: zakuetan eros dezakegu edo, bestela, kamioi batek etxeko biltegiara ekar diezaguke zuzen-zuzenean.

Produktu horrek kalitatezko ezauga-

riak ditu, eta Enerpellet enpresak badu jadanik DIN plus ziurtagiria. Izan ere, *pellet*-a erretzen denean kutsadura neutroa sortzen dela esaten da, arbolak bere bizian zurgatu duen CO² baino ez baita isurtzen ingurura.

Enerpell enpresak kanpoan saltzen du produkzio gehiena, berton ia ez baitago erregai hori erabiltzeko instalaziorik. Hala ere, badaude *pellet*-a erabiltzen dituzten galdarak eskaintzen dituzten enpresak. Horietako bat Kapelbi da eta Legutioko enpresen poligonoan dago.

Aukera berri honek galdera ugari sorraziko dizkizue zuetako askori. Gaian sakondu nahi duzuenek <http://eu.wikipedia.org/wiki/Pellet> eta <http://es.wikipedia.org/wiki/Pellet> helbideetan kontsulta ditzakezue datu gehiago.

Azkenik, *pellet*-aren abantailen artean hauek aipa daitezke: gasolioa baino %40 merkeagoa da eta ez du kutsatzen, ia ez du kerik botatzen eta berriztagarria da. Horrezaz gainera, gure energia da eta, horri esker, ez dugu beste erregai batzuen menpe egon behar.

"Yes we can"... Ahal dogulako...

Barack Obamaren kanpainaren zalapartak aho zabalik nauka. "Yes we can" horregaz hautsak harrotu be! *You Tuben* sartu eta hara non Hollywoodeko izar ospetsuenak be kantari. Mitinak espektakulu. Rap, *country*-a edo dana-dalako musika. Dolly Parton edo "The Boss"-aren doinuek bozgorailuetatik burrunba egiten. Banderatxoak, oihiak eta, ohi dan moduan, algarea nagusi ekitaldi guztietan, yupi!

Ez dot nik hemen "Yankee go home" esamolde errazarena aldarrikatuko. Izan be, bakotxak bere izaerea eta izatekoa dauka eta amerikarrena holakoxea da. Herrialde boteretsuenak dauen indar

mediatikoaz baliatuta, esalditxoa kontinente guztietara hedatu da eta gure artean be bere eragina izan dau. Beituzue, ni ere amerikarren buztarripean. Halabeharrez. Kontua da esaldi talisman bihurtu dala. Esakunearen esanahiak baino gehiago Obama pertsonajeak berak aitortzen deutsan indar eta ahalmenak dauka hemen garrantzia. Masak mogitzen ditu. Harek esan eta ingurukook "amen", gospel ikuskizuna bailitzan.

Gure Herriak be horrelakorik beharko leukela pasatu jat azkenaldion burutik. Lokartzetik esnatzeko. Gizarte anestesiatu honi astindua emoteko. Traba guztien aurrean, txikiak handiena ozto-



ZALOA JAKA

(Kazetaria)

patzeko gaitasunik be badauelako. Txikienak handiena neutralizatzeko gaitasuna be badauelako. Masak mogitzeko indar hori inportatu beharko geunke. Geure egin. Haize-bortitz eta berritzaile horretaz kutsatu beharko ginatke. "Yes we can". Guk be ahal dogulako.

GALAIISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Etengabeko ordutegia

Sabin Arana 1-3 SONDRA

pro audio
ESPECIALISTAS EN SONIDO

José Beltrán Galle
Txorierri atarribidea 15
48150 Sondra-Bizkaia
telefono: 945 533 375

www.proaudio.es
jgalle@proaudio.es

- hi-fi
- navegacion
- telefonos
- seguridad
- competicion
- personalizacion

Sabin Askolizaga
Asesoría Agraria
Alimentar

945 148 018
609 47 57 46

Tel: 94 453 1807
Fax: 94 453 6027

Mirinda, 6 Itakoa
48150 Sondra-Bizkaia

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Heteronormatibismoa suntsituz

Lehengo egunean langile-borrokan dabilen batek esan zidan ez zuela guztiz sexu askapenerako borroka ulertzen. Bere ustez, bakoitzak hartutako aukera errespeta garriak baino ez zirela. Zergatik jasan behar ditut halako komentarioak ezkertiarrengandik ere? Erantzuna erraza da, lagun horrek bere burua gizon eta heterosexualtzat duela kontuan hartzen bada. Sentimendu pribilegiatuak ditu jendarte heteronormatibista eta patriarkal honetan.

Baina aukera sexuala ez da gozokidenda batera joan eta marrubi edo mendazko txiklela aukeratzea bezalako zerbait. Kultura osoari egin behar zaio aurre. Eta kultura jendarte osoan islatzen da, eta indibiduo guztiengan.

Heterosexualak edo bere burua inposatutako genero batean kokatzen duenak ez du zertan justifikatu inoren aurrean bere desirak. Homosexual, bisexual, transexual edo *queer* bat, berriz, iraultzailea da. Bere sentimenduak plazaratu ahal izateko eskubideak borrokatzen zigortzen du. Borroka delako bide bakarra. Baina askatasun osoa lortzeko behar da borrokatu; ez soilik sistemak gure pluma onar dezan.

Sistemak pare bat etiketa sexual ematen digu aukeran; hiru, gehienez jota. Ez dugu etiketa-kartzeletan bizi nahi; aske bizi nahi dugu. Ezin dugu geure sexualitatea askatasunez bizi, egunerokotasunean apaltzen baikara.

Kristautasunak jendarte oso baten sexua kontrolatu du hainbat mendetan, hura ernalkuntzari lotutako ikuspegi batera murriztuz. Eta Historian zehar bere instituzioek gure jarrera eta kultura markatu arren, eta orain garenean eragin handia izan badute ere, gero eta txikiagoa da eragite hori. Baina, adi! Kapitalismoa gero eta indar gehiago dabil hartzen, eta materialismoa inposatzen digu era ez-zuzenean. Patriarkatuak, kapitalismoarekin batera, gure erlazioei eragiten die. Eta euren bitartekariak, *mass-mediak*, estereotipoak ezartzen dizkigute; eta porno industrialak sexu-jarrerak inposatzen dizkigu ohean. Honengatik guztiarengatik aska dezagun geure burua. Harro egon behar dugu gusatzen zaigunaz, eta geure zorientasunaren alde borrokatu. Plazera ematen digunaren alde, askatasunaren alde, ametsen alde... Askatasuna eta ametsak bizitzen ari garelako momentu oro.

Sexu-iraultza posible da, hemen eta orain. Posible da beste mundu bat, eta beharrezkoa, gainera. Pertsonen arteko harreman pertsonalak zein sexualak irauli beharra dago. Mundua ez delako erabat aske izango, alderdi hauek lantzen ez badira. Maitasunez borrokatu, borrokatu maitasunaren alde. Orgasmoa iraultzailea da. Sexua autogestionatu, elkartrukatu, gozatu!

Queer-a

Oker zuzenketa

Aurreko aleko 9. orrialdean, "Inauteriak prest" informazioa argitaratu genuen. Bosgarren paragrafoan hau idatzi genuen: "Beste alde batetik, otsailaren 1ean, 14:30ean, eskolako umeentzako antzerkia egingo da Kultura Areatan. [...] Hurrengo egunean hainbat ekitaldi izango dira arratsaldeko 7etatik aurrera frontoian: artista lehiaketa, herri afaria, mozerro lehiaketa, saloiz dantzak...". Hala ere, ekitaldi horiek zein herritan antolatu ziren ez genuen jakinarazi. Ekitaldiok Lezaman egin zituzten.

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 6
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Biskaiak)

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejedo
Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Biskaiak)
Tel.: 94 406 08 08
Móvil: 607 406 813

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
EMPRESARAKO INFORMATIKA
SAREEN, MANTENIMENDUA
SERBITZU TEKNIKOA
Avenida Pina 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

Patxi S.KOOP.
www.patxi.coop

Reclutado telefónico: 944 517 78 00
Nº1 NIVEL pol. - Bloque 10 - Calle 4
48170 ZAMUDIO - Biskaiak
☎+ (fax) 94 452 29 10
patxi@coop48170.com
www.patxi.coop

Ilahen
Biskaiak

haz
Biskaiak

2

HARAGITEGIA ALBERTO
Txorierri etorbidea, 5
Tel.: 94 452 08 25
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Labordakuri Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Biskaiak)

1.777 kilo janari batu da Txorierrin, Saharara bidaltzeko



Abenduan eta urtarrilean, janariak biltzeko kanpaina eraman da aurrera Loiu, Derion, Zamudion, Lezaman eta Larrabetzun. Kanpainan bildutako janariak Saharara bidali dira sahararren beharrianak betetzen laguntzeko. Udalerrri batzuetan, udalak eta elkarrekin jarri dute abian kanpaina, eta beste batzuetan herritarren ekimena izan da. Guztira, 1.777,5 kilo janari jaso dira. Bilketaren emaitzak honako hauek dira, herririk herri:

Loiu: 89 kilo arroz; 13 kilo azukre; 15,5 kilo dilista; 9 lata atun; eta 33 konpresa-pakete.

Derio: 120 kilo arroz; 120 kilo azukre; 100 kilo dilista; 60 kilo atun; 20 kilo beste-lako produktu; 5 konpresa-pakete; 2 orde-nagailu; eta gupil-aulki bat.

Zamudio: 300 kilo janari; eta 1.500 konpresa-pakete.

Lezama: 200 kilo janari (konpresa-paketeak barne).

Larrabetzu: 239 kilo arroz; 143 kilo azukre; 193 kilo dilista; 165 kilo atuna; eta 20 kilo konpresa.

Produktu horiek Saharara agindu dira otsailean Euskal Herriatik atera den elika-gai-karabanen.

Tailerrak, Zamudioko liburutegian

Hans Christian Andersen idazlea apirilaren 2an jaio zen duela bi mende, eta egun horretan Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da 1965. urtetik hona. Zamudioko liburutegian ipuinetakoko pertsonaiak sortzeko tailerra antolatu dute data horren inguruan. Tailerra martxoaren 29an, zapatuz, egingo dute goizeko 11:30ean, eta bertan idazle eta olerkari danimarkarrak sortutako pertsonaiak landuko dituzte.

Beste alde batetik, martxotik ekainera bitartean idazkera eta sormen tailerrak egingo dituzte. Tailerrok martitzenetan izango dira.

Bertso afaria antolatu du Lagatzuk

Martxoaren 14an, barikuan, bertso afaria izango da Zamudion, Lagatzu euskara elkartearen eskutik. Bertso afaria Lekunbiz jabetxean egingo dute gaueko 9etan, eta Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes eta Amets Arzallus bertsolariak arituko dira bertan. Txartelak 15 eurotan jarriko dituzte salgai eta leku hauetan eskuratu daitezke: Estankoan, Mari Elinean, Leandro harategian, Batzokian eta Susterrak tabernan. Era berean, 944523447 telefonora deitu edo lagatzu@lagatzu.org helbidera idatz daiteke sarrerak lortzeko.

LEIRE BEGOÑA
HEAPAINDEGIA

UNISEX HEAPAINDEGIA
ESTETIKA
ORDUTECI JARRAITUA
LASER-DEPLAZIOA

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 52

lurrindegia MAMEN mertzeria

Gaika kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

MAPFRE
DERIO

PAISATIA (PASA 2/6)
48160 Derio (Bizkaia)
T + 94 454 85 90
F + 94 454 05 90
artara@mapfre.com

ASADOR ARAMENDI

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

Abelino Arraindegia

Garbela kalea, 4 - Telefonoa: 94 600 75 75 / 76
48160 DERIO

Albaitaritza

HENAR ORTUONDO
ALBAILARIA

Abel Henar Ortuondo
Tfnua.: 94 454 29 27
48160 DERIO (Bizkaia)

DERIO

LARRAULTZA 25 ardatz
10m - 25 300 21 21 - Abentura DDT

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pekusaren Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefonua: 944 543 705

ganix
ORNETAKOAK - ORNETAKOAK

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(surrera Gaika Kaleatik)
Tfnua.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaia)

400 lan aurkeztu dira ipuin lehiaketara



Otsailean Txorierriko Ipuin Lehiaketaren sariak banatu dira Larrabarri Derioko base-
rrian. Lehiaketa Mankomunitateak antola-
tzen du eta aurtengoa 10. edizioa izan da.
Laida Goikoetxea euskara teknikariak aipa-
tutakoaren arabera, gero eta handiagoa da
parte hartzea, eta aurtengo edizioan 400
ipuin aurkeztu dira. Hala ere, lehiaketaren
helburua ez da parte-hartzaileen artean
lehiakortasuna bultzatzea, “sorkuntzan tre-
batu eta idaztera animatzea baizik”. Laidak
Txepetxa AEK euskaltegiaren, Udal Eus-
kaltegiaren eta euskara elkarteen laguntza
izan du ipuinak irakurri eta baloratzeko
orduan.

Lehiaketan bost kategoria osatu dira parte-hartzaileen adinaren arabera. Kategoria bakoitzeko sari bi eman dira; beste alde batetik, akzesit bi izan dira herri bakoitzeko. Saritzat material didaktikoa eman zaie umeei, eta agendak eta CDak, helduei.

Sari banaketa txanda bitan antolatuta zuten. Lehenengoan zazpi urtetik bederatzirentzat bitarteko umeek (A eta B kategoriak) hartu zuten parte; eta bigarrenetan, gainerako guztiek. Txanda bietan Txomin ipuin kontalaria eta Ainhoa ilustratzailea aritu ziren. Txominek ipuina kontatzen zuen bitartean, haren marrazkia egin zuen Ainhoak.

Lezama Bizirik elkarteak urteko batzarra antolatu du martxoan

Martxoaren 1ean, zapatuan, urteko batzarra egingo du Lezama Bizirik auzo elkarteak Goi-tioltzako txokoan. Bilera eguerdiko 12:00etan izango da eta bertan orain arte egindako lana eta datoren erronkak aztertuko dituzte, beste-ak beste. Baina zapatuan Lezama Bizirik El-kartearen Eguna ere ospatuko dute, egun osoan zehar hainbat ekitaldi egingo baitira. Horrela, goizeko 9:30ean auzolanei ekingo di-ete: umek hiru haritz landatuko dituzte eta helduek kartelak egingo dituzte. Eguerdiko 15:00etan indaba jana izango dute, eta horren ostean musika eta abarreko ekintzak egingo dira.

Txakolin dastatze ikastaroa egingo da Zamudion

Zamudioko Udalak Txakolinaren dastatze ikastaroa antolatu du Nekalur eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera.

Ikastaroa apirilaren 1ean, 19:00etatik 21:00etara, egingo dute Larragoiti txokoan, eta izena ematea martxoaren 27a baino lehenago egin behar da udaletxean. Parte-hartzaileek bost euroko fidantza ordaindu beharko dute, baina ikastaroan bertan itzuliko zaie. Ikastaroa Zorione Martinezek emango du. Bialtxa Bizkaiko Txakolin-egileen Elkartearen enologoa da bera.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
 (GOSPE-HAIA, GORRIDI & HONDA-HO-ITZ ZAMUDIO-ITHEA)
 BAZKARITAKOEN ZENTROA
 Sant Mari auzoa,1
 Tel: 91 454 10 06
 Fax: 91 454 12 10
 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Neres Pedrosa Culp, Sr
COOP CANADORA ZAMULO OFFIC

中国 = 中国 = 中国, 中国 = 中国 = 中国
中国 = 中国 = 中国 = 中国 = 中国 = 中国

Trichostema	434	13	77
	439	31	13
	438	17	13



Zerurena Jatorrena

Errementari kalea, 22
Telefonoa: 94 453 57 54
48150 SONDIRA (Bizkaia)
www.zerurena.com
e: zerurena@zerurena.com

HARATEGIA * URDAATEGIA
VICTOR
ELABORACION ARTESANA

Oskara geuk produzitzen dugu;
egiten ditugu odolosteak,
borrionak, toistorrak, solomoiak...

Plater aurrekozinatuak

Oskari Kalea n° 4 • Tel. 94 423 16 17
48160 SONDICA (BIZKAIA)


**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiatuak, konduktuaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldirizkarrak, libururak,
paperyingintza eta eskularrak
Mikel Zazale, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48100 SONDIKA (Bizkaia)

CMA AUXI
Zentro Mediko Estetikoa

Oteacoe, 1, Iteja 48150 Sondika
Tel: 94 471 03 04 / 671 50 26 66
cmcauxi@telefonica.net

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Txorierrin ere Emakumearen Eguna ospatuko dugu

Martxoaren 8an, zapatuz, Emakumearen Nazioarteko Eguna izango da eta data horren inguruan ekitaldi sorta zabala egingo da mundu mailan, emakumetasuna ospatzeko eta, era berean, oraindik emakumeak eskuratu gabe dituen eskubideak errebindikatzeko. Txorierriko kultura elkarteek eta Udalek ere zenbait ekintza antolatatu dituzte. Hilabete honetako alea itxi orduko hauek jaso ditugu:

Hilaren 4an, martitzenean, herriko emakumezkoen zuzendutako literatura eta dibulgaziozko bilera egingo dute Loiuo liburategian. Ekitaldian Toti Martinez de Lezea idazleak eta Sonia Gonzalez Behargintzako berdintasunerako teknikariak hartuko dute parte.

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak "Euskal emakumea eta beharra" hitzaldia antolatu du martxoaren 5ean. Hitzaldia Agus Ibarluzeak eta Ane Madariagak

emango dute, iluntzeko 8etan, Zamudiotorren. Beste alde batetik, martxoaren 6an Oihulari Klown antzerki taldearen emanaldia izango da 19:30ean Zamudiotorren, eta bertan ere omenaldia egingo diote Karmen Mendigureni. Karmen maistra izan da herrian urte asko. Ostean, kopaua eskainiko zaie Zamudiotorrera hurbiltzen direnei. Eta ekitaldi berezia egingo dute martxoaren 8an. Izan ere, udaletxeko balkoian lila koloreko zinta handi bat jarriko dute emakume guztien omenez. Hori goizeko 10etan izango da. Azken ekintza horiek biak Udalak antolatu ditu.

Umeei zein helduei zuzendutako antzezlanak

Laiak Lezamako emakumeen elkarteak *Ausartak* antzezlan aurkeztuko du martxoaren 7an. Lan hori Toti Martinez de Lezea idatzitako *Los graffitis de mamá* liburuan dago oinarrituta. Emanaldia arratsaldeko 8etan izango da Kultura Aretoan. Ostean, kopaua egongo da aretoan bertan eta Adintsuen Elkarteak.

Eta azkenik, Emakumearen Egunak Larrabetzuko kultura-egitaraua zehaztuko du martxoan.

Hilaren 3tik 14ra bitartean "Emakumea Lanean" argazki erakusketa izango da Anguleri Kultura Etxean, eta martxoaren 8an, zapatuz, Lakrikun antzerki taldeak *Greban gaude* lana antzeztuko dute arratsaldeko 6etan. Ostean, kopaua eskainiko da. Beste alde batetik, martxoaren 3tik 7ra bitartean umeei Emakumearen Egunari lotutako ekintzak lantzeko aukera izango dute ludotekan. *Urrun erreinua* txotxongilo lana aurkeztuko dute martxoaren 7an, 17:30ean, Kultura Etxean.




Argazkia: DAT



**Bocateria**
Otarteko
Pizzeria

ETXEZ ETXEO ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO TELF.: 9 44 52 11 42

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 08

MARMOLERÍA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA

*Sukalde eta bainugeletako harriak
fatxada, atariak eta hilerriak*

Torrelarragoiti Ind., P. 7B - nabe 2.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel./ Fax: 94 608 01 41 - 2

cianoplan s.a.
Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio
Telefona: 94 431 71 37
<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

Tximintzek kalitatezko kultur em-
naldiak antolatu ditu bost urte honetan.
Deriora hainbat lagun ekarri dira euska-
ra elkartearen eskutik: Joseba Iriondo,
Asisko Urmeneta, Oskorri, Arkaitz
Estiballes... Haiez gainera, Olentzero
antolatzen dute urtero Ipar-Alde abesba-

**MULTIPRECIO
RAKEL**

harategia - urdaitegia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZIA



Mikel Deuna, 7 * DIERO / 48160 * T: 454 52 94

 **desira** 
Bellezza, Benessere e Qualità del Servizio

Lifting mediante radiofrequenza
Fotodepilazione
Dibondaggio "sunless"
Ozonoterapia
Massaggio terapeutico
Decorazione di unghie

Unite Italia 6, eskualde horria - DDXIO - Telefonoa: 91 451 55 73

Nire Autocasion NA

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48180 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 649 16 77 12
Telefono-Fax: 94 454 51 92

www.nireautocasion.com nire@nireautocasion.com

Jaretxua **SAN ISIDRO**

EUSKO ORFELTAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GIZIENGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

*Karia zerbitzuak - J. ardoak zerbitzuak - J. astoiak prestatuak
J. astoiak balazterean eta etxi - Sakabileraren zerbitzuak*

telefono 94-454 07 98
fax 94-454 14 18

Haztegiak eta Txakolones, s/ 25
40160 DEIRO



ZAINDUZ

SORRIZU ALERKIA

- Odontologia orokorra
- Ortodontia (urreak eta haiduak)
- Periodontia
- Kazkonda faktoreen azterketa den plasmu
- Hortek osatuta (zuriketa, piercing...)
- Hortek jantzea eta iberritzea

Jesús Enrique López Hidalgo

Odontólogo

Elkarrizketak 7-ko helburua (jantzearen ondorioak)

Teléfono: 94 454 01 01 - e-mail: clase@claseonline.net - 48100 CERRO (Bizkaia)

 **UMEENTZAKO
MODA**
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DEFRIO
Durioia

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbollean jokatu, atorri zaitzez Trippya, Derlora

Beteko Kalea Bajo
DERIO

Lauroetako bertso-afariak arrakasta itzela izan du

Lauroetako jai-batzordeak bertso-afaria antolatu zuen lehenengo aldiz otsailean. Antolatzaileek erronka handia jarri zioten euren buruari: 70 bat lagun batzea. Eta helburua sobera bete dute, izan ere, ekitaldian 105 pertsonak hartu zuten parte.

Bertso-afaria Aurregoiti jate-txean egin zen. Bertako

jantokian 80 lagunentzako tokia dago, beraz, konponbidea topatu behar izan zen gainontzekoak sartu ahal izateko. Konponbidea erraz topatu zuten: jatetxeko tabernan 25 pertsonarentzako lekua atontzea.

Hori bai, afaldu bezain laster, 25 lagun horiek besteekin batu ziren jantokian, bertso-saioaz gozatzeko.

Xabi Paya eta Etxahun Lekue bertsolariak bat-batean aritu ziren Aurregoiti jate-txean, eta saioa gaueko 12etatik goizaldeko 2:15ak arte luzatu zen. Hori bertsolariak zein publikoa oso gustura izan ziren seinalea da, duda barik.

Lauroetako jai-batzordea oso pozik gelditu da, eta datorren urtean ere bertso-afaria antolatzera animatu direla esan digute. "Baina oso zaila izango da aurtengoa hobetzea". Ziur ezetz, jantokian giro itzela sortu zen, eta antolatzaileek hauek bezalako laudorioak entzun zituzten: "Oso gustura etorri naiz, baino askoz gusturago noa..." edo "Luze joango zaigu, beste urtebete itxaroten..."



URIGOITIA ETA BERMEJO, URIBE KOSTAKO TXAPELKETAREN IRABAZLEAK.

Urtarrilaren amaieran Uribe Kostako XXIII. Esku Pilota Txapelketaren finalak jokatu ziren Sopelako frontoian, eta Iker Urgoitia eta Yerai Bermejo izan ziren txapeldunak gazte mailan. Lezamarrek 22-17 irabazi zioten Bermeoko bikoteari.

Bermeotarrak faboritoak ziren, ligatzoko partidaren 22-11 irabazi baitzieten Urigoitia eta Bermejori. Hala ere, Lezamako bikoteak partida bikaina egin zuen Sopelan, eta garapena lortu zuten azkenean. Urgoitia atzelariak hartu zuen gehienbat partidaren pisua.



Erakusketa eta umeentzako filma, Loiuko liburutegian

Loiuko Udal Liburutegiaren arduradunek hiru ekitaldi berezi antolatu dituzte martxoan. Horrela, hilaren 12an, eguaztenean, *Patxi errementaria* filma emango dute arratsaldeko 5:30ean. Filma 3 urtetik 6 urtera bitarteko umeentzat da. Eta hilaren 26an, eguaztenean, ipuin kontalari bat mitologiaren arituko da arratsaldeko 6etatik aurrera. Ekitaldi hori 6 urtetik 12 urtera bitarteko umei dago zuzenduta.

Azkenik, liburu erakusketa egingo dute martxoaren 25etik 28ra bitartean, Zuhaitzaren Nazioarteko Eguna dela-eta.

Beste alde batetik, Txorierriko Udal liburutegiek poltsak banatuko dituzte hemendik aurrera liburu asko edo tamaina handiko liburuak eramaten dituzten erabiltzaileen artean.


Miguel Angel Lekue, garraiolaria
LARRABETZU
656 786 744 94 455 80 20



LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

URAS
Estetika eta masajea
Aita Patxi Ugaldes, 14 boltoa
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)


J. ELORRIAGA
Etxeke berezitasuna: bertoko okela
Iturrikoetxe, 7
Tfnos: 94 455 89 41
LARRABETZU


Oguiza
Hortz Klinika
Zaintza oso profesionala
Ezkerreko eta eskuineko
Prestakuntza oso profesionala
Ongarritzaileak eta ortodontia
Ezkerreko eta eskuineko
Ezkerreko eta eskuineko
Angulorik eragorritza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 94 455 88 90

Mozorroturiko herriaren hausnarketa:

“Jende gutxiago espero genuen aurten”

Aurten berandu hasi arren, Sondikako inauteriak, ohitura den bezala, ez dira berehala ahazteko modukoak izango. Horren lekuko izan dira bertaratu ziren txorierri-tarrak eta baita Sondikako Inauterien Komisioko taldea ere. 30 urte dauzkan komisioko lau lagunek minutu batzuk eskaini dizkigute: Igor Garciak, Aitor Azkorak, Alberto del Vadok eta Xabier Eguskizagak

Testua eta argazkiak: Jon Goikouria

Noiz hasi ziren jai hauetako prestaketak?

Aitor Azkorra: Gezurra badirudi ere, oso berandu. Normalean ez da horrela, baina aurten justu-justu ibili gara.

Xabier Eguskizaga: Lehenengo bilera 2007ko urriaren 5ean egin zen.

Zapore ona, baina?

Igor Garcia: Oso ona, aurreko urteekin alderatuz behintzat.

Alberto del Vado: Jendea oso pozik agertu da bai desfilearekin, bai Hortzmuga taldearen kalejirarekin. Gure artean, ekitaldirik harrigarriena kalejira izan da ezbairik gabe, herriko gehienak parte hartu duelako.

I. G: Gaua ere itzela izan da [barreak].

X. E: Eta baita goiza ere! [barre gehiago].

A. A: Giroa izan da Sondikan, eta eguraldiak ere asko lagundu du.

Espero bezain onak izan dira inauteriak?

A. A: Jende gutxiago espero nuen.

X. E: Ostiralean iaz baino jende gutxiago bildu genuen, baina larunbatean falta zen jende hori berreskuratu genuen.

I. G: Bai, itzela iruditu zitzaidan larunbatean Hortzmugak bilduriko jendea. Sondikako kale nagusia jendez gainezka zegoen.

Ostirala edo larunbata. Zirt edo zart. Zeinekin geratuko zinatekete?

A. A: Larunbatarekin, gauza gehien egiten den eguna baita. Egun horretan batzen dira umeak eta gurasoak.

I. G: Horrez gain, larunbatean tren zerbitzuak malgutasun handiagoa dauka lane-gunetan baino, jende gehiago erakarriz gauean. Benetan eskertzekoa da.

Zein izan da lan gehien eman duen ekitaldia?



X. E: Ahalegin eta diruaren artean ezberdintasun handia dago: kalejirak biak batu ditu. Bestalde, txosnen eta eskainitako zerbitzuen antolaketak ahalegin handia eskatu du, baina aldi berean ez hainbeste diru. **Inolako berritasunik izan al dute inauteririk?**

A. D: Bai, aipagarriena da Txorierri inguruko gazteek *hip-hop* musika saioak eskaintzeko aukera dutela. Larunbateko gaua izan zuten horretarako. Talentu berriak eskenatokira igotzen hasi dira aurten.

Zer-nolako jarrera izan du Sondikako Udalak dirulaguntzekiko?

A. A: Aurreko urteetan baino askoz hobeto

ibili da, pixka bat kostatu den arren. Oso pozik gaude aurten izandako tratuarekin.

X. E: Diru gehiagorekin lortuko genukeena musika talde hobeak ekartzea litzateke, baina gauzak dauden moduan ikusita, oso ondo konpondu gara gastuekin. Ez dugu inolako problemarik izan.

Eta bertako komertzio txikiek?

A. A: Data esanguratsu hauetan lortzen duten bezeria ikusita, euren aldetik laguntza gehiago izatea gustatuko litzazuke. Laguntza falta sumatu dugu orokorrean.

X. E: Baina ez dugu dirua eskatzen; ekitaldiren batean babesa ematearekin nahikoa genuke, besterik gabe.



AIKOR! aldizkarian
publizitatea jarri gura baduzu
deitu telefono honetara:
94 452 34 47
edo e-mail bat bidali
aikortxori@yahoo.es



Argazki gehiago www.aikor.com webgunean



KAFETEGIA

iAZi

JATETxea

Leialdea, 3 - Telefono: 94 454 19 46

DERIO - BIZKAIA

Carnicería

Charcutería

iMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2

TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko

elortzeagatik

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Ustez dazkiz, onakemak

Auzokoen komunitateak

Mantamatu jabi-irakait

Kaleak eta kudeak

Ustez onakemak garbitzeki

Ikuskerak

Zabier biltzaia

Besainik Plaza, 1 - Bº Aldekoa

48160 DERIO (Bizkaia)

loregarbi@euzkai.net

Tel: 94 406 49 92

656 712 443

Fax: 94 406 49 93



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizarean atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ZINEA

Igandero, 18:00etan

12 urte: 1 €
+12 urte: 2 €

Martxoak 2:
PERRO AL RESCATE
(A.G.)

Martxoak 9:
SIGO COMO DIOS
(A.G.)

Martxoak 16:
SORGIN BAT ETXEAN
(A.G.)



ANTZERKIA

Martxoak 7, barikua,
18:30etan

BREMENGO MUSIKARIAK
Teatro Paraiso
(haurrentzat euskaraz)

- 12 urte: 3 €
+ 12 urte: 5 €

Martxoak 8, zapatua,
20:00etan

UN ADULTERIO CASI DECENTE
Txalo Produzioak

sarrera: 15 €



Yoharra: Elbarribuen sarrerak Udako
Kultura Arloan gorte behariko dira
(T: 94.453.51.71)

karrean kalientia
venta de entradas

bbk niri gureak
kulturen berria eta
informazioa 944 510 510
en los sujetos de
servicio de bbk
o por teléfono
944 510 510

bbk

txartolegialan
ordu bat lehenago

Xabier Mendiguren, Kontseiluaren idazkari nagusia

“Atxikimendua ez ezik ikasi eta erabil dezagula ere behar du euskarak”



Kontseilua duela 10 urte sortu zuten, eta Xabier Mendiguren Bereziartu horren idazkari nagusia izan da ordutik hona. Mendigurenek gurekin ospatu zuen **AIKOR!** aldizkariaren urtebeteztea, eta guk ere zorionak eman genizkion Kontseiluaren 10. urteurrena dela-eta.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Gaizka Eguskiza

Nola baloratuko zenituzke 10 urte hauek? Txiki-txiki izatetik asko hazi gara, eta horrek, hainbat gauza egiteko aukera eman digu. Bi aipatuko nituzke bereziki: Bai Euskarari ziurtagiria (1.500 ziurtagiri banatu ditugu Euskal Herri osoan) eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia. Azken hori duela zazpi urte jarri zen martxan euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko. Egon diren urraketa eta kexen txostenak urtero egiten dira, gainera, hainbat arlo lantzen ditugu: batetik, prebentzioa eta kontzientziazte-lana, eta bestetik, gure moduko hizkuntzetako ordezkariekin hartu-emanak... *Newsletter* ingelesezko aldizkaria ere zabaltzen dugu European zehar. Iaz ziurtagiriaren elkartea sortu zen eta orain

bazkide gehiagorekin gabilta lanean.

Proiektu berrien gainean ere hitz egin diezagukezu.

Bai Euskarari akordioa 121 herritara ailegatu da. Duela gutxi 70 bat ordezkariarekin izan genuen bilera eta udalerrri batzuetan erakusketa bat antolatzea pentsatu genuen. Horrezaz gainera, “Euskaraz bai” adierazpena zabaltzen hasi nahi dugu. Hamar urte hauetan “Bai Euskarari” erabili dugu lelotzat, eta erabiltzen jarraituko da, baina euskararen alde zerbait gehiago aldarrikatu behar dela pentsatzen dugu. Hau da, euskarak laguntza behar du, jendearen aldeko-tasuna, atxikimendua...; hala ere, etorkizunari begira, hori ez ezik ikasi eta erabil dezagula ere behar du. “Euskaraz bai” adie-

razpenak gizartea behar horretaz jabetzea du helburu, eta gure ahaleginak batuko ditu datozen 10 urteotan.

Hausnarketa prozesuan omen dago Kontseilua.

Bai, urteurrena aprobetxatu nahi dugu, orain arte egindako lana eta datozen urteetan egin behar dena aztertzeko. Dokumentu bat atera dugu horretarako, eta urtean zehar sakonki landuko dugu. Dokumentuak gure jardunbidea zehaztuko du, eta oso inportantea izango da, gure bazkideen arteko harremanak sendotzeaz gainera, euskararen normalizazioaren inguruko helburuak aztertzeko baliagarria izango dugulako; hau da, helburu zaharrak sakontzeko, eta berriak bultzatzeko.



EGUNERO ZABALIK
Ordutegia:
13:00etatik 15:30ra arte
20:00etatik 23:30ra arte
Eleone ornatutako
zerbitzuak: 1 €

Beslorronte 5, Behesa 48160 DERIO
T: 94 454 55 55



Regalos y Complementos

Gernikako arbolak, 2 * 48160 DERIO * Tel. 94 106 05 24

Herrero Plaza, 1
Tel.: 945 089 319

48150 IZURDIA
Bizkaia

Nahikari

Bikiltzgia • Erloju-denda

Tel.: 945 089 319
GHEMINTZA, 10000



Zelango hutsuneak daude euskararen inguruan?

Irakaskuntzan, adibidez, aurrerapausoak eman dira, baina gazte guztiak euskaldunak izatea lortu barik jarraitzen dugu oraindik. Hizkuntza sailak prozesu bat abiatu du orain arteko euskararen ereduak gainditzeko, eta hori ondo bideratzea erabakigarria izango da, datozen urteotan benetako irakaskuntza euskalduntzailea izan nahi badugu.

Beste alde batetik, euskaraz ikasi duten gazteek lan-munduan hasten direnean, ez dute euren hizkuntza erabiltzeko aukera handirik. Kontseilutik hasieratik esan dugu lan-mundua ere euskaldundu behar dela; osterantzean, euskara oso mugatuta geratuko da eta ez du etorkizuna inola ere ziurtatuko. Horregatik, gazte euskaldunak lan-munduan integratzeko egiten diren ahalegin guztiak oso beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen ditugu.

Komunikabideei dagokienez?

Erdal komunikabideen bitartekoak, ugartasuna eta eskaintza gurek dituztenak baino askoz indartsuagoak eta aberatsagoak dira. Hori dela-eta, arazoak ditugu euskalduntasunari eusteko. Gure ustez, erdal komunikabideek Euskal Herrian kuota batzuk euskaraz jarri beharko lituzkete; bestela, egiten ari garen lana desegitea lortuko dute. Euskarazko komunikabideak ere indartu beharko lirateke, kalitatean zein kantitatean.

Egunerokotasunaren parte dira beste arlo batzuk ere euskaldundu behar...

Kontsumoaren mundua, adibidez. Produktu asko sortzen dira gizartean, eta horiek ere euskara behar dute, euskaldunoi eguneroko hizkuntza-paisaia bat segurtatzeko. Gaur egun ez dago politikarik euskaldunoi paisaia hori bermatzen digunik, eta guk politika hori eskatzen dugu. Izan ere, eguneroko pasaia linguistikoa euskaraz ikusteak ala ez ikusteak alde handia sortzen du euskaldunok gure hizkuntza erabiltzeko ditugun aukeretan.

Gure eskubideei dagokienez, gero eta kontzientzia handiago dugula uste dut, gero eta gehiago eskatzen dugula, baina hutsuneek hor jarraitzen dute. Administrazioan –Osakidetza, Ertzaintza, Justizia...–, esate baterako, oraindik zail suertatzen zaigu euskaraz egitea, eta, nire ustez, Adminis-

“Euskaldunoi eguneroko hizkuntza-paisaia bermatzen digun politika eskatzen dugu”

“Euskararen normalizazioa asko luzatzeak adorea galtzea eta atzerako joerak ekar litzake; arlo publikotik zein pribatutik saihestu behar da hori”

trazioak eredugarria izan beharko zuen.

Duela gutxi azterketa egin duzue 66 udalerritan, zer atera duzue ondorio?

Oso esperientzia garrantzitsua izan da, eta lau urterik behin errepikatzeko asmoa dugu. Udalerririk horietan ia bi milioi biztanle dago orotara; beraz, atera dugun ondorioa Euskal Herri osoaren egoeraren isla izan daiteke, zailantza barik. Eta ondorioa ez da batere ona izan. Giro euskalduna dagoen

herrietan hizkuntza politika hobea da; hala ere, helburu batzuei heldu behar zaie oraindik. Azterketa egiteaz gainera, Ordenantza eredugarriak lana kaleratu dugu eta bertan euskarazko politika on batek nolakoa izan beharko zuen azaltzen dituen ereduak batu ditugu. Euren hizkuntza politika hobetu nahi duten udalerriek erabili ahalko dute hemendik aurrera. Gainera, lan horretan lau tipologia ezberdin jaso dira, herrietan egon den euskaldun kopurua kontuan hartuta, eta Iparraldeko herrien egoera ere egokitu dugu.

UNESCOn arabera, euskara arrisku egoeran dagoen hizkuntza da. Kezkagarria omen da.

Munduan 6.000 hizkuntzatik gora daude. Askok oso hiztun gutxi dituzte, eta asko ez dira ezta idatzi ere egin. Astero hizkuntza bat desagertzen dela esan daiteke. Egia da euskararen egoera ez dela beste hizkuntza batzuenaren parekoa: guk idatzita dugu hizkuntza, irakaskuntza dugu euskaraz, hizkuntza estandarizatu egin dugu, jendeak nahi du euskarak irautea eta bitartekoak jartzen ari gara. Gure arazoa normalizazioa lortzearen erritmoan dago batez ere. Normalizazioa asko luzatzeak adorea galtzea eta atzerako joerak ekar litzake, eta hori, arlo publikotik zein pribatutik saihestea ezinbestekoa da.



AM
Información
y
Traducciones

- Ingeluko mende guztietan
- Pasaia erregionalak
- Cambridge Unibertsitateko atzerakal prestatuta. DOI...
- Hizkuntza hizkuntza kolektibitateak

Garaioleza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Erreumeneri 16
48150 SONDIKA
T: 94 451 64 08

amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

LEJARRENE JATETXEA
Garaioleza 120 D • LEZAMA • T: 94 455 64 69

ARANTZA AMONDARAIN LASA
GINEKOLOGOA

Ikasturteko 120 D, 4. 415
amondarain@euskalnet.net

48190 DEIJO
Tlfon./Fax: 94 454 44 00

Hiru emakume, gizonaren eredu unibertsala gainditzten

Agus Ibarluzea Txorierri Institutuko irakaslea da. Ane Mateos Batxilergoko 2. mailan dabil eta Euskararen Batzordearen kidea da. Mayi Pascual 4. DBHko ikaslea eta IAKo arduraduna da. Emakumearen Nazioarteko Eguna aitzakiatzat hartu, eta mahai inguruan batu ditugu.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Gaizka Eguskiza

Martxoak 8, zer da data hori zuentzat?

Agus: Oso egun polita da. Alde batetik, jaieguna delako, emakumetasuna ospatzeko aukera dugulako. Eta beste alde batetik, egun horrek gogorarazten digulako oraindik baditugula zenbait aldarrikapen.

Mayi: Ados. Egun horretan gauza asko antolatzen dira, baina ez dugu ahaztu behar lan hori egunero egin behar dela.

Nola ospatuko duzue institutuan?

Ag: Beste lankide batek eta biok XIX. mendeko eta XX. mendearen hasierako Bizkaiko emakumea lantxoak egin dugu. Lanak helburu bi ditu: alde batetik, Historian emakumeak duen hutsunea betetzea, eta material eskuragarria izatea, edozein momentutan klasean lantzeko. Ez dugu martxoaren 8rako espresuki egin, baina egun hori aprobetxatuko dugu institutuan aurkezteko. Zamudion ere aurkeztuko da martxoaren 5ean. Horretaz aparte, irakasleok gaierekin zerikusia duen zenbait ariketa landuko dugu, eta institutua girotzeko ikasleek proposatutako hainbat ekintza egingo dira. 2008. urtea, XXI. mendea eta III. milurtekoa. Gezurra dirudi gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunei buruz jarraitu behar izatea...

“ Ag: Emakumeok ez dakigu oraindik noraino heltzeko gai garen. Gizarteak ez digu hori jakiteko aukerarik eman, eta guk ere oso barneratuta dugu gizonen eredua ”

Ane: Berdintasuna lortzen gabiltza, baina hainbat arlotan ezberdintasunak daude oraindik. Eta gu ere matxistak gara batzuetan...

M: Arloka baino ezberdintasunok egunerokotasunean ikusten direla uste dut, bakoitzaren jarreretan. Institutua ere horren ispilua da: mutilak eta neskak sakabanatuta gaude klasean, mutilek gurekiko duten portaera...

Ag: Urteetan zehar gizonen eredua indarrean egon da, eta ezin da egun batetik bestera hori aldatu. Emakumeok urtetxoak daramatxagu aldarrikapenak egiten, baina

oraindik ez dakigu noraino heltzeko gai garen. Gizarteak ez digu hori jakiteko aukerarik eman, eta geuk ere oso barneratuta ditugu zenbait jarrera, gizonen jarrera, historian zehar lehentasuna izan dutelako. Horretaz ez gara ohartzen, eta hori da larriena, nire ustez.

Berdintasuna lortzeko aurrera eramaten diren politikak eragingarriak dira?

Ag: Babesa dugu legeen aldetik, baina babes hori noraino ailegatzen den aztertu beharra dago. Eta bitartekoak edo ematen diren pausuak ere bai. Emakumearen aurkako indarkeria, adibidez, oso gai serioa da eta ezin da tratatu gaur egun egiten den moduan. Halako kasuek oihartzuna dute komunikabideetan, haserrez komentatzen ditugu gure artean, baina gizarte mailan ez dago behar besteko erantzunik. Kontzentrazio txikiak izaten dira; nik ez dut inoiz ikusi manifestazio erraldoi bat emakumearen aurkako indarkeria salatzen... Esan nahi dut hilketa Txorierri gertatzen bada, berton egingo dela kontzentrazioa; eta ez Euskal Herri mailan. Eta gizarte mobilizatzeko alderdi politikoei eta sindikatuak dago. Askok gehiago egin ahalko litzateke politika arlotik, nire ustez.

Urtarriletik hasi eta elkarrizketa hau egin orduko 19 emakume hil dituzte Estatuan; 89, iaz.

Ag: Bitartekoak landu behar dira, gizarteak hezi behar da. Eta burura datorkigun lehenengo hezitzailea eskola da; baina ez da bakarra, beste asko daude: familia, kalea, lagu-





Ane Mateos

“An: Babesa ez da nahikoa. Nork hartzen du urruntze-aginduak bete daitezen ardura?”

eredu unibertsal hori gainditzen joan gara pixkanaka-pixkanaka, eta zenbait gauza apurtzen... Ez dugu gizonen menpe bizi nahi, eta gizona orain arte dominatzailea izan denez, ezin du onartu emazteak lana izatea, soldata... Jadanik ez da jaun eta jabe etxean, eta galduta dago. Ondorioz, era batean edo bestean erantzungo du. Egia da beste kultura batzuen aldean pribilegiatuak garela, aldaketak egon direla; hala ere, ereduak aldatzeko premia dugu oraindik.

An: Entzun edo ikusi dugun edozein gauzaren aurrean, nahiz eta hori inportantzia gutxikoa izan, ez badugu ezer egiten, ez da ezer aldatuko.

Errebindikazioei buruz hitz egin duzue lehen. Zeintzuk?

An: Lan arloan, adibidez, zergatik izan behar du emakumeak gizonak baino soldata txikiagoa, lan berdina egiten badu? Puntu asko uki daitezke; dena dela, jendea kontzientziaztea ezinbestekoa da. Ez gara larritu behar emakume bat hiltzen denean soilik; hilketa saihestu behar dugu.

M: Egokia ez den jarrera ikusten dugun guztietan errebindikatu behar dugu.

Ag: Eskolan, etxean, kalean, lanean... eta

“M: Egokia ez den jarrera ikusten dugun guztietan errebindikatu behar dugu”

zaintza arloan ere bai. Hori emakumearen ardurapean dagoen arloa da, eta, nire ustez, oso inportantea da seme-alaben edo gurasoen zaintza gizonekin konpartitzea. Gainera, zaintzarekin lotura dituzten lanpostu gehienetan emakumeak daude eta ez da euren lana behar bezala baloratzen; oso soldata baxuak izaten dituzte normalean, etorkinek hartzen dituzte halako lanak... Afektibitatea ere sakondu ahal den beste arlo bat da. Emakumeok gehiago landu ditugu sentimenduak eta emozioak, hola-ko eredua jaso dugulako. Eta gizonek ere badute afektibotasuna beste era batean bizi eta adierazteko eskubidea eta beharra.

An: Nahiz eta, beharbada, matxistak ez izan, oso sentibera den mutilari buruz “maritxua” dela esateko joera dugu...

M: Horrek zerikusi handia du gizonen eta emakumeen egokitu zaizkigun roletan. Rol horiek erabat errotuta daude gizartean; argi ikusten da.

Beno, institutuan gaude. Zer du emakumeak eskuratzeko berton?



Mayi Pascual

nen taldea, publizitatea, telebista, zinema... ereduak helarazten dizkigun guztia, azken batean. Indarkeriaren aurkako kanpaina puntualak egiten dira, baina kontua da urteko gainontzeko egunetan hori zelari bideratzen den. Behar besteko bitartekoak ipintzen dira?

M: Hor dago koska! Politikarien ahotik hitz politikak entzuten ditugu, baina, gero, benetako eragina duena telebistan, institutuan, lagunen artean, familian... ikusten eta entzuten duguna da.

Ag: Legea beharrezkoa da; lege barik ez genduke inolako babesik izango, argi dago. Baina legea oinarritzeko gauza da, eta hortik abiatuta hobetu behar dira gauzak.

An: Ba, nik uste dut babesa ez dela nahikoa. Emakume batek salaketa jarri eta urruntze-agindua lor dezake, baina nork hartuko du senarrak agindua bete dezan ardura? Emakumeak hiltzen jarraitzen dituzte...

Ag: Eta emakumeak zergatik hiltzen dituzten hausnarketa ere egin behar da. Gizonen

Hästens

since 1852

Guztion ametselako oheak

www.hastens.com

ARTEAGA koltxoi-denda

Derioko Seminario • 94 454 51 47 • DERIO

“Ag: Herritarrak hezi behar baditugu, guztiak hezi behar: emakumeak zein gizonak”

M: Mutilek gurekiko dituzten portaerekin zerikusia duen guztia, batez ere. Gerta liteke neska bat mutilen albotik pasatu, eta, edo zerbait esaten diote, edo ipurdia ukitzen diote... Eta gainera, egoera horien aurrean ez dugu ezer esaten, normaltzat hartzen ditugu. Ez duzu inoiz neska bat ikusiko mutil bati ipurdia ukitzen... Bestalde, eta lehen aipatu dudan moduan, oso adierazgarria da klasean mutilak alde batean esertzea eta neskak, bestean. Hori patioan, pasilloetan... ere ikusten da.

Ag: Txarra al da hori? Berdinekin egoteko gogoia izan daiteke, besterik ez.

M: Ez diot txarra denik. Zure sexuko lagunekin egon nahi baduzu, gustura zaudelako da, argi dago. Baina hor zerbait hausnartzeko dago, nire ustez. Ez da normala institutuan ematen diren egoera gehienetan gertatzea.

An: Gimnastika klasean, adibidez. Futbolan aritzeko proposatzen bada, mutil guztiak prest; eta neskak izkina batean eserita... Eta neska bat mutilekin ibiltzen bada, “marimutila” dela diogu.

Ag: Eta futbol partida beharrean, gimnastika erritmikoa egingo balitz, aldrebes gertatuko litzateke.

An: Iaz dantzak egin genituen, eta ez zen mutil bat ere animatu!

M: Dena dela, gimnastika klasean bai ikusten direla generoak mutilen eta nesken artean ezartzen dituen ezberdintasunak. Genero bakoitzak berez duen egoera fisiokoari lotuta dago hori.

Eta irakaslearen ustez?

Argitaletxeok ahalegintxo egiten dute emakumea testu-liburuetan sartzeko; hala ere, gaia hobetu behar da oraindik. Gizonen kulturari, Historian... erreferentziak izan dituzte; emakumeok, berriz, ez. Izan ere, ez zaigu aintzat hartu eta, horren ondorioz, erreginak ez badira, ematen du Historian ez dela emakumerik egon. Egia da kontu hori beste era batean zaintzen dela gaur egun, baina jarraitzen dut hutsunea ikusten. Nire ustez, ikastetxe guztietako plangintzan hezkidetzaren arloa sartu beharko litzateke, eta hortik abiatuta, hausnarketa egin. Horrela, irakasleok gure jarduerak zainduko genituzke, eta Historian, Literaturan, Matematikan... gailendu den emakumerik badago, hori ere aipatu beharra dugu. Emakumeen balioak aintzat hartu, onartu behar ditugu gizonezkoen parean jartzeko. Herritarrak hezi behar baditugu, guztiak hezi behar dira: emakumeak zein gizonak. Eta bakoitza dagoen arlo guztietan hori betetzen saiatu.

Beste alde batetik, uste dut hezkuntzak ez diela ikasleei eredu bakararra eskaini behar. Bizitza honetan eredu asko daude eta ikasleek guztiak izan behar dituzte aukeran, nahiago dutena hauta dezaten. Pertsonok



Agus Ibarluzea

gure osotasunean hezteko eskubidea dugulako.

An: Institutuan hainbat talde ditugu: IA, Euskararen Batzordea, Agenda 21... Berdintasunaren aldeko taldea ere sortu ahaliko litzateke... Eta ez soilik emakumeon eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko; pertsona guztien arteko berdintasuna lortzeko, baizik. Gero eta etorkin gehiago daude eta institutuan ere igartzen da.

Institututik salto egingo dugu etxera...

M eta An: Berdintasuna dago.

Ag: Nirean ere bai. Baina etxe gehienetan badago ardura bat gehienetan gure menpe dagoena: seme-alaben eta gurasoen zaintza, hain zuen ere. Horrela hezi gaituzte eta geuk ere gureganatu egin dugu. Gero... garbiketa dela-eta, egia da sentiberagoa naizela... Garbitasuna zer den eztabaidagai dugu etxean! (kar, kar)

Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna; martxoak 9, hauteskundearen eguna. Zer eskatzen diezue politikariei?

M: Ahalegin guztiak egiteko berdintasunerako bidean.

Ag: Legea betearazi dezatela modu batean edo bestean. Eta bitartekoak jar ditzatela.





Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 456 60 16
e-mail: lezama@foc.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak.

Kitchen sukaldeak



COMPANIA: KITCHEN
DISEÑO: KITCHEN
FOTOGRAFIA: KITCHEN
DISEÑO: KITCHEN
FOTOGRAFIA: KITCHEN



Eta tratu txarren aurrean gizartea mobilizatzeko, mobilizazio gutxi dagoelako.

An: Babes gehiago. Gizon batek emaztea hil, eta zenbat urte emango ditu kartzelan? Gutxi, kutzazain bat erretzen duen gazte baten aldean. Baina, zer da hori?

Ane eta Mayi, zer espero duzue bizitzatik institutua amaitu ostean?

An: Medikuntza ikasi, gizonak dituzten aukera berberak izatea lanean, seme-alabak edukitzea, bizitza norbaitekin konpartitzea...

M: Ez daukat oso argi zer ikasiko dudana, baina argi dudana hau da: bizitzak gora-behera asko ditu, eta bikotea izan arren, independizatu arren... ez dut nahi bizi-

tzak ekar diezadakeen horrek guztiak ikasteko aukera kentzea.

Eta zuk, Agus, espero zenuena topatu duzu?

Gauza batzuk, bai; eta beste batzuk ez. Dena dela, suerte handia izan dudala uste dut: gustuko dudana lan batean aritzen naiz... Lana oso inportantea da niretzat, beti baloratu dut asko, eta gaur egun ez dut ikusten neure burua soilik etxeko gauzak egiten... Bizitza pertsonalean ere suertea izan dut. Beno, baina oraindik bizitzaren beste zatitxo bat egitea espero dut, eta nire helburuak bete ahal izatea. Emakumearen rola nahiko barneratuta dut, ziur asko. Hor ere badut zer ikasi.

ETXeko ZERBITZUETAN ESPEZIALIZATUAK

VIZCANA DE PETROLEOS, S.L.

Gasóleo a domicilio

902 330 009
vp@gasoleosvp.com

40106 LEZAMA, BIZKAYA

EXCAVACIONES AZURMENDI

www.azurmendi.com

MOBIL: 649 102 132

Tel/Fax: 944 554 150

35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?

Dirulabekume lotu nahi duzu ene asier baten? Pasa eta eragitu gure heziketa tekniko prestakuntza publiko, kalitateko eta eraginkor. Lan munduan aurreratu ahal izateko.

PROFESIONALIZAZIORANTZ BIDE AZKARRA

TXORIERRI

Politeknika Ikastetxea

Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional

Udako Bideak: 1. 04110 - GORRIO

Tel.: 94 403 40 80

Fax: 94 403 40 81

info@txorierri.net

www.txorierri.net

HEZIKETA ZIKLOAK

KIMIKA

Ingeniari-Heziketa *Gai mola (1.400 ordu)*

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioa *Enfi mola (2.000 ordu)*
- Proiektu mekanikoen garapena *Gai mola (2.000 ordu)*
- Proiektu mekanikoen garapena *Gai mola (2.000 ordu)*

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

Ereduazio eta kontrol automatikoen sistemak *Gai mola (2.000 ordu)*

Teknikomunikazio eta informetika sistemak *Gai mola (2.000 ordu)*

MERKATARITZA ETA MARKETINA

Merkebilizazio eta merkebilizazio *Gai mola (1.400 ordu)*

BATXILLERGO TEKNIKO ETA ZIENTIFIKOA

Pitike-aurrera



**Merceria
Karmele**

Txarlerriko biotxistera, 7 ZAMUDIO T: 94 452 02 57



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torreanagoiti Ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 87 89 48178 ZAMUDIO (Gizaketa)



**Eleizalde
kafetegia**

Lainemendi, 7 48160 DERIO (Bizkaia)
(Liztaren aurrean) Telefonoa: 94 454 52 88



**Inmobiliaria
ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobila: 607 32 35 53 48160 DERIO

DERIO FRUTADENDA



Sollube, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO


**MARMOLGINTZA
GOYO**

SUKALDE-GAINEKOAK
OBRAK ETA HILERRIAK

Ugaldeguren I ind., 18-B nahca
48160 DERIO (Bizkaia)
Tfnoa: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



Udane Goikoetxea Bizkaia Irratiko esatariak ekitaldia zuzendu eban



pitike... goaz!



AIKOR! aldizkariak sei urte bete ditu; sei urte, eta 68 ale kalean. Urteurrena ospatzeko, TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak ekitaldi berezia egin eban urtarrilaren 24an Gurea aretoan, Derion.

Txalaparta hotsek ondoetorria egin egin eutsien jenteari. Ehun lagun baino gehiago batu ziran aretoan; tartean izan ziran Alaitz Etxeandia Lezamako alka-

tea, Txorierriko udal ordezkariak, hainbat elkartetako kideak, eta lagunak. Uda-ne Goikoetxea esatariak ekitaldia zuzendu, eta berbea emon eutsen gonbidatuei.

Ander Aiarza Derioko alkateak zorionak eman zituan aldizkariak egindako sei urteko ibilbideagatik, eta, horren ostean, Ortzi Garitano bertsolariak bertsoak kantatu zituan. Fran Lasuen musikariak abesti batzuk eskaini zituan eta aurrerapen bat be egin euskun. Kukubiltxo Larrabetzuko antzerki taldeak *Hartzaren azalera zehatza beharra* estreinatu dau otsailean, eta Lasuenek musika jarri deutso horri. Antzezlanerako konposatu dituan abestietatik bat **AIKOR!** aldizkariaren urtebetetze egunean oparitu euskun.

Xabier Goienetxe **AIKOR!** aldizkariaren zuzendariak sei urte honetako balantzea egin eban eta Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek barre eragin euskuen euren umore zorrotzagaz.

Xabier Mendiguren Kontseiluaren idazkari nagusia be izan zan gonbidatuen artean. Aldizkariaren nondik norakoak ezagutu ondoren, pozik azaldu zan egindako beharragaz, eta hori eskualdeko herriak lotzeko tresna garrantzitsutzat jo eban.

Beste alde batetik, eta urtero legez, **AIKOR!** sariak banatu ziran. Aurten Kukubiltxo antzerki taldeak eta Aurtenetxe enpresak jaso dabe saria. Sariokaz Kukubiltxo taldearen jarduera profesionala hartu da aintzat, eta Aurtenetxek aldizkariari emondako laguntasuna eskertu da.

Ekitaldiaren ostean, luncha egon zan San Isidro jatetxean, trikitilariak giroturik. Batzuk berandu arte luzatu ziran.

Argazkiak: Gaizka Eguskiza



Frank Lasuenek bibolinaz giroa berotzen lagundu zuen kanta batzuk kantatuz



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

ETIKETA, MATEMATIKA, BAZKARUAK, ELKARRIADAK, GUTUNAK, TALDEAK



Sarrikola, s.d.l. Lezabizua
Tel: 94 458 83 37
Gaztelako tel: 910 70 83 84

Programak eta Webguneak

zeure neurria eginda



erabakiak hartzen
lagunduko dizugu

Tel/Fax: 94 656 99 03/01
www.leinak.com

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubietza

Osasun-aztorak & Hortz-ostetika
HORTZ-PLANTEAK - OSTEODONTIA ESTETIKOA
TALDEAK ZUZEN DITUEK

Dr. Arribas kalea, 31 1. sol. • 48011 IRIU (BI) • Telefonoa: 94 441 6177
Urteko plaza, 1 • 48170 XAMI (BI) • Telefonoa: 94 458 1370

PIPIKA IKUSLAN



Tietanurreko graduatuen
Kontakatu lekuak
Eguzkitako betanurrekoak
Lekuakango musikak


Ora kalera, 3. floor: 91 452 28 18 ZAMUDIO



Alaitz Etxeandia Lezamako alkatea (goian) eta Lander Aiertza Derioko alkatea (behean) gonbidatuen artean izan ziran




Xabier Mendiguren Bereziartu Kontseiluaren idazkari nagusiak gugaz ospatu eban 6. urteurrena





AIKOR! saria Aurtinetxe enpresak eta Kukubiltxo antzerki taldeak jaso dabe aurtan



Hotel Tryp Sondika



Ezkontzak

OSPATU ZEURE EGUNIK
BEREZIENA GUREKIN

Jaun-hartzeak



TRYP

HOTELES

Carretera de la Avanzada, 2-4 • SONDIKA - 48150

Tel: (34) 91 530052 • Fax: (34) 91 4530620


E-mail: tryp.sondika@solmella.com

Behargintza Txorierrik lan garapena sustatzen dihardu

Iaz 1.400 lagun eta 500 enpresa inguruk erabili zituzten Behargintza Txorierriko enplegu-zerbitzuak

Urte ona izan da 2007a, Txorierri eskualdeko enpleguari dagokionez. Izan ere, aurreko urteen aldean, bertoko enpresek langile gehiago eskatu dute eta pertsona prestatu gehiago sartu da lan-merkatuan. Behargintza Txorierri garapen horren ekile dinamizatzailerik izan da, jarduteko ildo nagusi biren bitartez: bata, pertsonen

enplegarritasuna hobetzeko ildoak, zeinak lan-orientabideko zerbitzua, prestakuntza-zerbitzua eta enplegu-zerbitzua baititu; eta, bestea, eskualdeko enpresak sustatzeko ildoak, zeinak langileak hautatzeko zerbitzua, enpresa berriak eratzeko arloa eta enpresak garatzeko egitasmoak sustatzeko atala baititu.




Pertsonen enplegarritasuna hobetzea

2007an abiarazitako harrera- eta informazio-zerbitzuari esker, Behargintzaren erabiltzaileen arreta pertsonalizatua hobetu egin da, eta zerbitzurik egokienera bideratu dira erabiltzaileak, euren beharren arabera. Guztira, 1359 lagunek 2.611 kontsulta egin dituzte Behargintzan. Horra hor, kontsulta horien tipologia:

Parte-hartze gehiago Lan Orientabideko zerbitzuan

Lan-orientabideak beste zerbitzu batzuen osagarritasunean du zentzua, eta "laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak" direlakoetan antolatzen da. Ibilbideon barruan, mota hauek bereiz daitezke: banakakoa, taldekoa eta prozesu handiagoen barruan –hala nola, gizarteratu eta laneratzeko jardueren barruan edo laneratzeko enpresen barruan– lortu nahi dena. 2007an, nabarmen handitu da lan-orientabideko ibilbide pertsonalizatuetan parte hartu duten parte-hartzaileen kopurua.



Aurrera egin da enpresak eratzen



Txorierri, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea ahaztu barik, enpresen eraketa sendotzen eta laguntzen jarraitu behar delako beharra sendotu du 2007. urteko ekitaldiak Behargintza Txorierriko Ekin Sailarentzat. Horiek horrela, 2007an hainbat ekintza garatu da:

–**Kultura ekintzailea sustatzeko 7 jarduera** antolatu dira. Jarduera horiei esker, trebetasun ekintzaileak garatu dira eta enpresa-egitasmo bat eratzeko eman be-harreko urratsak ezagutu dira. Jarduerotan 39 lagunek hartu dute parte.

–57 sustatzailek aurkeztutako **36 enpresa-ekimen berrien tutoretza** perso-



nalizatua egin da. Aipatzekoa da emakume (% 65) baino gizon (% 35) gehiagok parte hartu duela.

–**Sortu berri diren 9 enpresa** sustatu dira, hain zuzen ere, pertsona bat (% 78) nahiz talde bat (% 22) buru izan dutenak. Enpresen sustatzaileen % 33 emakumezkoak izan dira (hau da, enpresa horien



Prestakuntza-arlo guztiak handitu egin dira

Prestakuntzaren barruan, Behargintza Txorierrik hiru arlo lantzen ditu: lanerako prestakuntza, etengabeko prestakuntza eta nork bere lana sortzea (autoenplegua). Lehen, lanerako prestakuntza, emakumeak eta gizonak lanpostu jakin baterako trebatzean datza. Bigarrena, etengabeko prestakuntza, jardunean dauden langileei dago zuzenduta, euren trebakuntza hobetzearen, eskuarki euren egungo lanpostuarekin zerikusia duten alderdiei dagokienez. Eta hirugarrena, autoenplegua, nork bere negozioa sortuz bere lana sortu nahi duen pertsonarentzat litzateke.



Laneratze gehiago, eta gizonen eta emakumeen artean orekatuagoa

Aipatu beharra dago, lan-merkatuan pertsona gehiago sartu dela, eta Txorierrin laneratutako gizonen eta emakumeen kopuruak orekatuta daudela. Izan ere, hori da 2007. urterako ezarri den ildo estrategikoaren ikuspegitik lortu nahi izan den helburua, hots, emakume gehiago laneratzea.

sustatzaileen % 50 baino gehiago emakumeak direla) eta % 56, gizonetakoak (hau da, enpresa horien sustatzaileen % 50 baino gehiago gizonak direla) eta % 11, mistoak (hau da, enpresa horien sustatzaileen erdia, emakumeak eta beste erdia, gizonak).

Hamabost lanpostu sortu dira guztira, eta haien artean % 87 beren kontura-

ko langileak izan dira, % 62, gizonak eta % 38, emakumeak. Besteren konturako langileak, berriz, lanpostuen % 13 izan dira (% 2tik % 50era, emakumeen eta gizonen artean banatuta). Lortutako emaitzek agerian jarri dute arlo honetan egindako lanari eutsi beharko zaiola eta emandako zerbitzuak hobetu beharko direla, batez ere emakumeek enpresak sor ditzaten sustatzeko helburuarekin.



BEHARGINTZA TXORIERRI

Berreteaga Poligonoa 13 – A
48150 – Sondika (Bizkaia)

Tfnoa.: 94.453.63.70

www.e-txorierrri.com

Untza Mendi Taldea

“Mendira joateak Euskal Herria ezagutzeko aukera ematen du”



Testua: Gaizka Eguskiza
Argazkia: Untza Mendi Taldea

Noiz sortu zen taldea?

Taldea 1980an sortu zen. Hala ere, garai hartan egon zirenetatik lauzpabost baino ez dira gelditzen taldean.

Zenbat kide zaudete?

50 kidek osatzen dugu elkarte. Hala ere, astero-astero 20 besterik ez gara ateratzen mendira. Kide gehienak nagusiak dira, tamalez. Izan ere, herriko beste taldeetan gertatzen den moduan, gurean ere nagusiak errelebatzen dituzten gazte gutxi daude. Zergatik? Auskalo! Ibilbideak oso goiz hasten ditugulako igandeetan, agian; edo kirol-eskaintza oso zabala delako Derion, akaso: areto-futbola, pilota... Kide gehienak Deriokoak dira, baina larrabetzuarrak, zamudioztarrak, galdakarrak eta leioarrak ere baditugu.

Beste alde batetik, kluba federatu egin dela aipatu beharra dago. Horrek istripu-segu-

Derioko Udaleko Kultura zinegotzia dugu Jesús Lagunas. Hala ere, ez diogu politikariari elkarriketatu nahi izan, mendizaleari baizik. Izan ere, Untza Mendi Taldeko idazkaria da Jesús eta hilabete honetan elkarte hori dugu mintzagai, hain zuzen ere.

ruak zein diru-laguntzak lortzeko aukera ematen digu.

Zer egiten duzue normalean?

Igandeetan Bizkaitik eta ondoko herrialdeetatik (Burgos, Errioxa, Gipuzkoa, Araba...) ibiltzen gara. Goiz osoa ematen dugu kanpoan eta bazkaltzeko ordurako etxean gaudela. Urtero 40 ibilbide antolatzen ditugu. Horietaz aparte, urtean asteburuko bi irteera egiten ditugu eta elurretara joaten gara, baina ez pentsa eskiatzera joaten garenik, tontor bat igotzera, baizik.

Gainera, araututako mendi-martxa antolatzen dugu San Isidro jaietan Udalarekin batera. Aurten XXII. edizioa beteko du martxak, eta bertan 500 pertsonatik gora batu ohi dira. Gabonetan Gorbeira joaten gara. Bi ekintza horietan biltzen da jende gehien. **Menditik ibiltzeaz gain, beste ekintzaren bat antolatzen duzue?**

Bai. Erakusketak egiten ditugu. Iaz, esate baterako, Iñurrategi Fundazioak egindakoa ekarri genuen.

Eta aurten, zer egingo duzue?

Urbion mendietara joango gara ekainean, eta urrian Orreagara. Bertan, Urkulu gailurrean, alegia, erromatarrek eraikin zuten dorrearen aztarnak ikusi nahi ditugu. Eta aspalditik zera egin nahi dugu: Zamorara joan eta Peña Trebica, bertako tontorrik altuena, igo nahi dugu. Beste alde batetik, bazkide batek mikologiari buruzko erakusketa egitea proposatu du, eta udazkenean martxan jarriko dugu, beharbada.

Nolako harremana duzue Txorierriko beste mendi taldeekin?

Normala. Elkar ezagutzen dugu, baina normalean ez dugu ezer elkarrekin egiten. Harreman estuagoa dugu, aldiz, Uribe-Kostako talde batzuekin. Horiekin eguna

“Beste taldeetan moduan, gurean ere nagusiak errelebatzen dituzten gazte gutxi daude”

pasatzera joaten gara noizean behin; Arabara eta Nafarroara, batez ere. Guztira, 300 lagun biltzen gara bertan. **Zenbait mendi, zenbait txango... Nora joatea gomendatuko zeniguke?**

Irteera polit batzuk egin ditugu. Pirinioetako Orhi eta Anie mendiak ikusi ditugu, Kantabria eta Palentziaren arteko Peñalabran ere egon gara, Gorbeia ere aipagarria da, Hiru Erregeen Mahaia... Ezin dut bakar bat aipatu, hainbatetan eta hainbatetan ibili garelako. Eguraldia ona bada, izugarrizko paisaiak ikusten dira.

Euskal Herrian izugarri atsegin dugu mendia. Horrek errazten du mendi taldea kudeatzea?

Euskal Herrian mendirako zaletasun handia dago, bai. Txorierrin ere jende asko eta asko joaten da ibiltzera sarritan. Eta ildo horri jarraitzen dio taldeak, hau da, gurea mendi taldea bada ere, ez gara mendi altuetatik ibiltzen. Anto-

“ Ez gara gailur garaietatik ibiltzen. Normalean antolatzen ditugun txangoak edozeinek egin ditzake ”

latzen ditugun txangoak edozeinek egin ditzake. Kide batzuk Aconcaguan edo Mont Blancen egon dira, eta taldea Pirinioetara joan da behin baino gehiagotan, esate baterako. Baina normalean neguan ez gara joaten 3.000 metroko mendietara, gehienok ez gaude prestatuta-eta. Guk ibilbide laburrak egiten ditugu. Hasieratik, argi izan dugu mendira joateak Euskal Herria ezagutzeko aukera ematen duela era erraz eta polit batean.

Baina kudeaketa errazagoa izango da zinegotzia izanda...

Ez, ez. Ni zinegotzia izateak ez du zerikusirik. Taldeak ibilbide luzea du, eta betidanik harreman ona izan du Udalarekin. Baina guk ez ezik, herriko talde guztiek ere bai. Derion aspalditik daude talde asko: kirol, kultura, gizarte mailan... Eskerrak eman behar zaizkie horiei, izugarrizko herri-atxikimendua adierazten dutelako beti, hau da, inauterietan, herriko jaietan... Gainera, udalak ekitaldiak antolatzeko eta laguntzeko eskatu dien bakoitzean prest agertu dira.

Informazio gehiago:
Derioko Batzokian
652 71 27 02 telefonoan

GAZTELEKU TABERNA



LARRABETZU

Andra Mari, 6 - Tel 94 455 88 97

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak eta besterok
Aisialdirako landak - Apoiatzen zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88



BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denbora luze duen enpresa



Goizoltezu ezazu, 37 (LEZAMA)
94 455 61 46

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
San Marín sarrua, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 50 50
Faxa: (94) 452 11 46



GOIKO TABERNA

Taberna-jatetxea



Menu berekoak: laburrak, ertainak, luzeak

- Egunerako menua eta txerri
- Jantzeriak eta cordonak
- Jantzeriak

R. Goizoltezu, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

CAFETERIA GRISSON



Fluxua eramateko janaria
Urtebetzeak egiten dira
Arteak eta jantzeriak

Goizoltezu, 12 B. boko
Telefonoa: 685 75 11 05
www.cafeteriagrisson.com
48196 LEZAMA (Bizkaia)

On egin

Hastekoak, txerriak, txerriak, txerriak
gizak, txerriak, txerriak, txerriak
gizak, txerriak, txerriak, txerriak

94 455 63 94

LOTERIA LEZAMA

BONULOTIA
LOTERIA PRIMITIBA
1-X-2
SARTZARRA
ELOHIMILLOAK

CADUNTAKO ETA FRIGETAKO
LOTERIEN ERRESEERAK
ZERBITZUA, ENPRENTATZ
TASEMENTZAT, ETAB

ARRETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAI) • TELEFONO/FAX: 94 455 64 87

LEZAMA MOTOR

- Carroceria
- Mecánica
- Electricidad
- Neumáticos
- Pre - J.T.V.

Reparación y mantenimiento
vehículos a domicilio en Lezama

Documentos matricul
Permisos de conducir

Polizak/Seguros/Seguros (Pase, Pasa, Pasa)
Polizak/Seguros/Seguros (Pase, Pasa, Pasa)
Polizak/Seguros/Seguros (Pase, Pasa, Pasa)

GAMINIZ

JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, parke teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 4°31'13" W

www.gaminiz.com

KIMA

Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Goizoltezu 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAI)

Sexua baino, laguntza bidezko ugalketa nahiago dugu

Gorka Barrenetxea Quirón Klinikako Laguntza bidezko Ugalketa-unitateko zuzendari medikoa da. Bere ustez, emakumeek seme-alabak gero eta beranduago edukitzea erabakitzeaz edo espermaren kalitatearen urritzeaz aparte, badago beste faktore bat eragin zuzena duena urtean egiten diren laguntza bidezko ugalketa-eskaertan: sexu-harreman gutxi izatea.

Sexu-harreman gutxi ditugu, eta horrek zailtasunak ekartzen dizkigu seme-alabak izateko orduan. Barrenetxeak azaldu duen moduan, sexu-harremanak baino beste olgeta mota batzuk nahiago ditugu, eta esandakoa berresteko, Hego Dakotan (AEB) bizi diren *amish*-ak hartu ditu adibidetzat. *Amish*-ak landa-ingurunean bizi dira, ez dute antisorgailurik erabiltzen, 17 urte dituztela ezkontzen dira eta monogamoak dira. Hala ere, argindarra –eta horrekin batera, telebista- euren bizimoduan sartu zutenetik, seme-alaben kopurua nabarmenki jaitsi da komunitatean.

Quirón Klinikako Laguntza bidezko Ugalketa-unitatek bikote asko pasatzen dira; adin ertaineko bikoteak zein gazteak. Doktoreak tratatu dituen kasuetariko askok disfuntzio sexualarekin zerikusia dituzten arazoak izan dituzte; inpotentzia edo baginismoa, esate baterako. Baina laguntza bidezko ugalketaren orde, ugalketa naturala lortzeko disfuntzioa tratatzeko proposamena egin zaienean, bikote guztiek umealdia ziurtatu nahia- go izan dute, sexu-harremanak baino.

Bikote askok haurdun noiz gelditu diren jakitea seinale txarra da Barrene-

txearen esanetan. “Behar besteko sexu-harremanik ez dutela izan adierazten du horrek. Telebista logelatik kendu beharko genuke”.

Lana eta sexua uztartu

Familia eta lana uztartzeko ahaleginak



egiten dabilta erakundeak, enpresak eta langileak. Lan-bizitza eta bizitza sexuala ere uztartzearen alde azaldu da doktorea. “Politika nahiz Filosofia arloei dagokien hausnarketa da, eta lehenbailehen egin behar da”. Bikote askok egun ugalkorrak zeintzuk diren galdetzen dute eta erantzun bera da beti: guztiak. “Egun guztiak ez dira ugalkorrak, jakina, baina egutegian markatzen hasten bagara, presioak hainbat arazo ekar diezaguke; “gatillazoa”, haien tartean”. Lanak eta jarduera aisiazkoek “distrattu” egiten dituzte bikoteak, eta, ugalketa-zentro batera jo baino lehen, sexu-harremanen maiztasuna areagotu egin behar dela jakinaraztea ezin bestekoa da.

Beste alde batetik, emakumeak ama noiz izango den larregi programatzeak “egoera lazarriak” sortzen ditu, Barrenetxearen ustez. Izan ere, badaude 40 urte dituztela haurdun gelditzen diren emakumeak, baina alde aurretik haurdunaldia nahita eten egin dutenak. “40 urterekin desiratzen den seme-alaba ez da 32 edo 34 urterekin eduki nahi. Horren atzetik laguntza bidezko ugalketa-unitateek izandako lorpenak egon daitezke, beharbada”.

TXORIERRI
Inmobiliaria

ZUBIRIAGANDIN GERTUEN DUTZEN INMOBILIARIA
AHHUEKULARITZA TASAZKIDIA
ALOKATZAPAK ERKUALDITZEAK
SALEROSKETAK
SOLUTIOEN BILBAURDUN AGENZIA

Batas Alferia, 2-SANTOÑA TEXEIRA
Tel./Fax: 90 011 12 82 - 90 011 18 11
E-mail: txorierri@txorierri.com

GOXO-GOXO LOHIZUN

Hartzaileak zabalik
OGA egindako
Prestakuntza

Garaiak: 77c
AKTIBO txarrena
90 433 43 77
gogozalohizun@hotmail.com

TXAKOLINA
LUISABRE

11% Vol. 75 cl.

Garaiak: 87
TX: 94 455 65 41
670 87 37 36

Bizkaiko Txakolina.
Denominación de Origen

Victor Gamboa Garabietak biltza, prestatu eta botilatuak
LEZAMA-SPAIN
N.R.F. 48/40570/BI

AMAIURU ZAMUDIO
CALLE - BAR
ARETXETA

Oraindik ere...
Tel: 94 455 65 41
Fax: 94 455 65 41

